

## BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

1179

*EBAZPENA, 2016ko martxoaren 1ekoa, Hezkuntzako sailburuordearena, haur-eskola pribatuentzako 2015-2016 ikasturterako emandako diru-laguntzak jakinarazten dituena.*

2015.eko azaroaren 27ko EHAAren, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko azaroaren 17ko Agindua argitaratu zen, 3 urtetik beherako umeak atenditzen dituzten ikastetxe pribatuentzako 2015-2016 ikasturterako diru-laguntzak eskuratzeko baldintzak arautzen duena.

Aipatu aginduaren 12.1 artikuluekin bat etorriaz, Hezkuntzako sailburuak hartutako ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Horrek ez du esan nahi onuradun gertatzen direnei jakinarazpen indibidualizatua egingo ez zaienik,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko azaroaren 17ko Aginduaren babesean emandako diru-laguntza guztiak eta haien onuradunak jakinaraztea. Zerrenda ebazpen honi atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, a 2016ko martxoaren 1a.

Hezkuntzako sailburuordea,  
MIREN ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO.